Isusko	(Ark. - Tol. 1458)
Ixidor	(Ixen.)
Izinu	(Ark. X - XV)
Josepe (Joasttipi, Joxe, Joaxe),	
Ioseba)	(Ixen.)
Iren	"
Iker	"
Juxtin	"
Iusti	(Ark.)
Inge	(Ark. X - XV)
Iésus, Iosu	(Ixen)
Iokin	"
Imanol, Manu	"

K

Koldo	(Ixen.)
Karla, Xarles	"
Kondor	(Ark. X - XV)
Kasimir	(Ixen.)
Kamil	"
Kasen	"
Karmel	"
Kerman	"
Kadet, Kaiet	(Tol. 1458)
Koldea	(Ark. X - XV)
Kusko	"
Kontin	"
Kamos	"
Kelmen, Klemen	(Ixen.)
Kristian	

L

Laurendi (Laurentx)	(Ark.)
Lopitz (Txope)	(Ark. X - XV)
Luk, Luka	(Ixen.)
Laumii	(Ark. X - XV)
Lorda	"
Luken	(Ixen.)
Lander	"
Lontzi	"

M

Matiu, Matai	(Ixen.)
Mikolas, Nikolau	(Ark.)
Mikel, Mikele, Mikeliz (Mike-	
lesto, Mitxel, Mitxelto)	"
Mattin (Martiko, Matxinto, Mar-	
tieko, Martitxo), Martie, Marti-	
santz	(Tol. 1458)
Maiorga	
Mark	
Martxel	
Merkat	(Ark.)
Martxot	"
Musko, Musto	(Ark. X - XV)
Murthuts	
Manu (Cf. Imanol)	
Meteri	(Ark.)
Maren	(Ixen. 1897)
Matxiki	(Tol. 1458)
Martxelin	

N

Nabar	(Ark. X - XV)
Naudin	"

O

Otsando	(Ark.)
Ortxix	(Ark. X - XV)
Oier, Uxer (Oierko)	(Ark.)
Otxo, Otxoa (Otxoko)	"
Omer	(Ark. X - XV)
Orti-Urti	"
Ot	"
Orzaize	"
Osoits, Osoitz	"
Onsalu-Unzalu	

P

Paul, Paulo (Polxume)	
Franzis, Frantses (Patxi,	
Patxiko, Fraixku)	
Paleu	(Ark.)
Panpili	
Pattin (Pattintxiki)	
Pelegri	(Ark. X - XV)
Perestua	"
Prexit	"
Pelento	"
Panpale	
Patrik, Patri	
Paulin	(Ixen.)
Phillipe, Fillipo	
Petri (Cf. Betiri)	

S

Salbatore, Xabat	(Ark.)
Sabin	(Ixen.)
Santsin	(Ark.)
Satordi	"
Santxo (Cf. Antso)	
Sandi	(Ark. X - XV)
Sans, Sants	"
Sanzol	(Ark.)
Sandor (Cf. Deunoro)	
Seber	(Ixen.)
Sein	"
Semero, Simen, Xemein (Seme-	
roitz, Semeneitz, Xeme, Xe-	
meko)	(Ark.)
Sendoa	(Ark. - Tol. 1458)
Sist	(Ark. X - XV)
Sostie	(Ark.)

T

Tristant	(Ark.)
Tibalt	"
Teodor, Todor	(Ixen.)
Txordon	(Ark.)
Trokas	

U

Ugutz, Battitt	(Ixen.)
Unai	"
Urban	"
Urko	(Ark. S. XII)
Unax, Urtungo	(Ark. X - XV)
Unzalu	(Ark.)

X

Xabier	(Ixen.)
Exabier	(Ark.)
Xanet	(Ark. X - XV)
Xango	"
Xanti (Cf. Iakue)	
Xemark, Xemartin	
Xepirin, Keperin	(Ixen.)
Xerafin	
Xerbaxo	
Xilben	(Ixen.)
Ximun	
Xiril, Kiril	(Ixen.)
Xotil	"

Z

Zoil	(Ixen.)
Zeledon	
Zentuluz	(X - XV)
Zekodin	(Ark.)
Zain	(Ixen.)

Emazteki izenak - Nombres de mujer

PRÉNOMS FÉMININS

A

Agata	(Ark.)
Agate	(Ixen.)
Arregine, Erregiña	(X - XV)
Arroxali	(Ixen.)
Agurtze	"
Arren	"
Araiz	(Ark. X - XV)
Añeta, Añes	"
Ainhize	"
Amaia	
Arrosa (Arroxa)	(S. XIX)
Argia	(Ark.)
Andere	(X - XV)
Anastasi	
Andrumea	(X - XV)
Asaride	"
Auria	(Ark. X - XV)
Albire	"
Andregoto	"
(Antxaño), Ansa, Antsa	(Ark.)
Anttoni	
Aguirre (Ntra. Sra.)	(Górliz)
Andina	
Andikona (Ntra. Sra.)	(Bérriz
Areitio " "	(Mallabia)
Alxarte " "	(Abadiano)
Aitziber " "	(Urdiain)
Andion " "	(Mendigorría)
Arrako " "	(Isaba)
Arizaga " "	(Iturmendi)
Arrigorria " "	(Arraiza)
Arkiloain " "	(Sarriés)
Artiza " "	(Iza)
Arantzazu " "	
Arrate " "	(Eibar)
Ainhoa " "	
Azitain " "	(Eibar)
Añamari	
Aurramari	
Anaurra	
Auxtina	
Abeliñe	(Ixen.)
Aintzane	"
Alazne	"
Aurkene	"
Apala	(Ark. XII - XIII)

B

Beltxa	(X - XV)
Bakarne (Bakartxo)	(Ixen.)
Berezi (Ntra. Sra.)	(Busturia)
Basaba " "	(Unziti)
Beatasis " "	(Zúñiga)
Begoña " "	
(Baketxo)	
Balendine	(Ixen.)
Baleri	
Bengoa	
Bixenta	
Bittorina	
Bizi	(X - XV)
Birxita, Birkita	"
Basille	(Ixen.)
Barria (Ntra. Sra.)	
Azitain " "	
Axpe " "	
Askoa " "	
Ayala " "	

D

Domeka, Txomeka	(Ark.)
Dorote	(Ixen.)
Dunixe	"
Dulzia	(Ark. X - XV)
Doniansu (Ntra. Sra.)	(Zizur)
Dorleta " "	
Deña	(Ixen.)

E

Eder (Edertto)	(Ark.)
Elixa	
Edurzeta (Ntra. Sra.)	(Oka-Ibarruri)
Erdoiza " "	(Izurza)
Elkuren " "	(Altsasu)
Ermin " "	(Esteribar)
Eunate " "	(Muruzabal)
Elixabete	(Ixen.)
Edurne	"
Eneca, Oneca	(Ark.)
Engrazi, Geaxi	
Eskarne	(Ixen.)
Eulali	
Estibaliz, Estibariz (Ntra. Sra.)	
Etorne	(Ixen.)
Ezozia (Ntra. Sra.)	(Placencia de las Armas)

F

Felizita	
Helena	
Huratta	(X - XV)
Frantxa, Frantxina, Pantxika	

G

Gixane	(Ixen.)
Gorane	"
Gergori	"
Gexiña (Gexinaño)	
Gorritiz (Ntra. Sra.)	(Lumo)
Goikuria " "	(Yurreta)
Gaxinta	
Gabon, Jaione	(Ixen.)
Gaxuxa	
Garbiñe	(Ixen.)
Graxi, Garazi	

Gurutze
Gure (Ixen.)
Graxit

I

Ikerne (Ixen.)
(Ixtebeni), Estebeni
Idoia (Ntra. Sra.) (Isaba)
Isasi " " (Gordejuela)
Iratxe " " (Ayegui)
Irma (Ark.)
Izar
Izaro
Irmina
Irune (Ixen.)
Itziar (Ntra. Sra.)
Izaskun " "
Igone (Ixen.)
Idoibalzaga (Ntra. Sra.) (Errigoiti)
Izina (X - XV)
Inge "
Yosune (Ixen.)
Itxaso (Ntra. Sra.)
Ida (X - XV)
Yasone (Ixen.)
Yulene "
Yokiñe "
Yoana, Yanamari (Yoanaño), Ionamaite, Ione (Ganattipi, Ganeder)
Yurdana (Xurdana) (Ark. - Tol. 1458)
Ismene (X - XV)
Irene
Yolanda
Idurre (Ntra. Sra.)
Iruñia " "

K

Katixa, Kattina, Kattalin, Kontxesi, Konze, Sorne (Ixen.)
Koxpa, Goxepa
Koleta
Kamila
Kodes (Ntra. Sra.) (Torralba)
Karmele (Ixen.)

L

Larraitz (Ntra. Sra.)
Leire " "
Luxila
Laxia (X - XV)
Libe (Ixen.)
Lore "
Lide "
Lasagain (Ntra. Sra.) (Anué)
Legarra " " (Olza)
Legarda " " (Mendabia)
Leorin " " (Deikaztelu)
Leonor
Luxia
Lierni (Ntra. Sra.)

M

Mikela, Mikelantoni
Maite, Maitesa, Maitena
Marimikel, Marimattin, Miren, Mayi, Marigurutz (Mirentxo, Maittipi), Marikattalin, Maribettiri, Mainttoni, Marisantz (Marixume, Maieder, Marigazte), Maixemark, Maixemartin (Maipullit, Maibeltx, Aurramari) (Ixen.)
Milia (Ark.)
Mendi (Ntra. Sra.) (Estella)
Muskilda " " (Otsagi)
Maddalen
Margarita (X - XV)
Marta
Martxela
Maxepa
Maia, Maiena
Manta (X - XV)
Martixa (Ark.)
Miranda (X - XV)

N

Nora (Ntra. Sra.) (Sangüesa)
Nabar (Nabartto) (Tol. 1458)
Nere (Ixen.)
Nekane "

O

Oitia (Ntra. Sra.)
Olaz " "
Orreaga " " (Roncesvalles)
Oneka (Ark.)
Otsanda, Otxanda "
Oinaze (X - XV)
Orzuri (Ark.)
Oskia (Ntra. Sra.) (Iza)
Osane (Ixen.)
Otsana (Ark.)

P

Paxkalin
Prixka (Cf. Frantxa)

S

Sara
Salome
Sokorri (Ntra. Sra.)
Sorbe (X - XV)
Saura "

T

Trexa
Ttuttina
Ttala
Ttotte, Dota, Totakoxe (Ark.)

U

Urrategui (Ntra. Sra.)
Urrexola " "
Uzuri (Ark.)
Usmena "
Usua, Usué (Ntra. Sra.) (Ujué)
Urdina (Ark.)
Ula/Uda (Ntra. Sra.)
Urraka (Ark.)

X

Xurdana (Cf. Yurdana)
Xobadin
Xuxuna
(Xexili), Zezili
Xuria

Y

Yolanda
Yera (Ntra. Sra.)
Unzizu (Ntra. Sra.) (Arellano)
Irubarri (Ntra. Sra.)

Z

Zaloa (Ntra. Sra.)
Zuberoa " " (Garde)
Zidoni

Euskal abeslari berrien diskoak: CINSA - Avda. del Ejército, 18, 3.° - BILBAO-14

Por Alfonso Irigoyen

Pertsona izenen auzia Hego Euskal Herrian

Ez gaitezen behaztopa bigarren aldiz harri berean.

Gauza ezaguna da gerra ondoan pertsona izenen gainean Hego Euskal Herrian izan ditugun gora beheren kontua. Are gehiago, gerra baino lehen, Arana Goiri-ren garaitik aurrera, euskarazko bezala korritzen zuten izenak juzgaduetako liburuetatik tatxatu egin zituzten eta ordez gaztelaniazkoak honetsi —hauek parentesis artean ipini behar baitziren ordurarte— eta gerra ondoan aur asko eta asko izena aldaturik ibili izan da eskola eta ikastetxeetan eta geroko dokumentuak hala dituzte, gurasoen gogoz kontra eta kasurik gehienetan izena daramanaren beraren gogoz kontra eta etxekoen eta lagunen arteko ohituraren kontra. Zaharragoen artean ere berdin gertatu zen.

Ez gara hasiko, Arana Goiri-k sorturikako sistemaren arauera, izenak egoki osatuak dauden ala ez juzgatzen. Garai batean euskalari batzuk, Azkue, Altube, Orixe eta abar, hortaz eritziak eman zituzten eta bego hor, zeren gora behera horiek ihardunaldi honetarako batere ez baitigute axola. Zenbait izen oso ezagun izatera iritsi dira, jende askoren gogoko bihurtu baitziren eta hori aski da hontzat har daitezen etorkizunean ere. Beste asko, ordea, ez dira moldezko letretan duten bake arnasagabekotik sekula bizidunen artera agertuko, agian gogoko izate hori egundo lortuko ez dutelako. Edozein modutan ere azken finean antroponimoak ez dira pertsonak bata besteaganik bereizteko besterik erabiltzen eta funtzio hori betez gero ez dute berez beste egitekorik hizkuntzan. Berdin berdin balioko luke horretarako arbitrarioki asmaturikako izen eufoniko edo ez hain eufoniko batek, hori jende gehienaren gogoko izaten ez bada ere gure artean eta dirudienez ezta Espainian Rejistro Zibila joan den mendean sortu zenetik izan diren lege egileen gogoko ere. Modu bateko edo besteko tradizioa izan dezan nahi izaten dute, ostera, gurasoek. Gutxienez nolabaiteko tradizio itxura, gehiegi sakondu gabe itxura bederen.

Orixe-k dionez (**Euskera** XIV (1933), 289 orr.), berak ere hontzat hartzen duen Olabide-ren eritzia hau zen: euskarazko saindu izendegia belaunaldirik belaunaldira osatu behar dela, haiek honesten edo gaitzesten dituztela proposatzen diren izenak.

Gorago esaten ari nintzenez gerra ondoan bide hestu eta larrietatik sarrerazi gintuzten Madrileko agintariek 1938-garren urteko maiatzaren 18-an emanikako ordena baten bidez eta geroago 1957-garreneko uztailaren 9-an legea atera zuten: (**LRC**, art. 54) «Tratándose de españoles, los nombres deberán consignarse en castellano». (**RRC**, 14-XI-1958, art. 192) «Se permiten los nombres extranjeros o regionales. Si tuvieren traducción usual al castellano, sólo se consignarán en esta lengua».

Horrela saindu izen guztiak euskal itxuran galeraziak gelditzen ziren Hego Euskal Herrirako, denak dutelako gaztelaniaz mintzatzen denerako forma bat bederen. Hala ere 1938-garren urteko ordena eman zenean bidea utzi zuten **Aránzazu, Montserrat, Iciar, Begoña** eta abar ipintzeko eta geroago **Aitor, Amaya** eta horrelakoak, **Amaya** erdarazko elaberritik hartuak, lagatzen hasi ziren, legeak nolabait bide bat zabalik uzten zuenez gero. Egin behar zena, beraz, argi zegoen: erdaraz ordezko ohikorik ez zuen izenen bat bilatu aurrari ipintzeko, erraza ez bazen ere korritzen zuen ezagunik aurkitzea. Eta Estatuaren funtzionarioak halako izenez argitasunik txikiena ere ez zutenez gero gurasoak zertifikatu baten eske Euskal Akademiara bidaltzen hasi ziren eta egintza horrek argi eta garbi utzi zuen agirian Estatu istituzionalizatua eta bere burokrazia **de facto** ez zela gauza berberak emanikako legea nola bete behar zen jakiteko.

Edozein modutan ere Euskal Akademiaren nortasuna hontzat hartzen zuten, haren legezko **status**-ari gehiegi begiratu gabe. Eta Euskal Herri osoan, Bidasoa muga bezala ezagutzen ez duela, kokatua zegoen eta dagoen gure istituzio bakarra, ezin besterik eginik, nolabait interpretatzen hasi zen Estatuak hain zuzen ere euskaldunak izurratzeko asmo hutsez emanikako legea.

Euskal Akademiak zertifikatu behar duena, zeren oraindik legea aldatzeko baitago, aldatuko dela esan bada ere, euskal izen delako batek legeak dionaren arauera gaztelaniara itzulpenik ez duela da, izen propioak berez itzulpenik ez badute ere, lege egile linguistikaz eta antroponimiaz deus gutxi zekitenek besterik uste izanarren. Haien ondoko burokrazia osoarentzat legeak, legea denez gero, errealitatea berez du eta obeditu egin behar da paperean ipinirikako fraseez baliaturik, gizarte historikoarekin ezer ikustekorik ez badu ere bortxatzeko eta izurratzeko besterik ez baldin bada fatzismo mueta baten izenean.

Erodutzat ipin dezakegu deiturekin gertatzen dena, horiek ere antroponimoak baitira, egun **gertaera** normalean gurasoenganik seme alabengana iragaiten direnak beti. Inori ez zaio burura etortzen, ezta aipaturikako lege lotsa gabekoaz emakumeak jasan ohi duten minik gabe erditu zigenei berei ere, horiek gaztelaniara itzuli behar direnik jatorriz euskarazkoak edo gaztelaniz ez den beste erromantze batekoak direnean. Hori bestela balitz eni ez lidateke legez **Irigoyen** firmatzen utziko eta **Villalta** erabili beharko nuke. Baina horretara bortxatu nahi ligukeen bati burutik egin zaiola erantzungo genioke.

Legeaz gainera jurisprudentzia jaramon egin behar omen zaion bat, ere sortu da zenbait auzi izan ondoan eta azi horiek direla kausa Madrileko zuzendaritza nagusiak azaldurikako argumentazioen bidez zenbait izen galeraziak gelditu dira bereziki. Bat edo beste aipatzeko hor ditugu **Eneko, Gaizka, Iker**, eta abar.

Badut honetan neure lepoan harturikako eskarmentua, besterenean hartu nahi izan ez nuelako, eta orain ere ez nuke hartu nahiko, zeren oinharrizkoa iruditzen baitzait gure eskubideak zaintzea, legeak aitortzen ez badizkigu ere. Eskarmentu hori 1973-garren urtean izan nuen ene semea jaio zenean, juzgaduan ere **Eneko** ipini nahi izan bainion izenez eta galeraziric baitzegoen aurreko urteko otsailaren 1-ean F. Escrivá de Romaní orduko zuzendari nagusiaren firmaz Antonio Imaz Goikoetxea-k Tolosan eraginikako auziaren ondoan. Eta makila bakoitzak bere kandela biztua sostenga dezala, bere izena ahaztu nahi eta ahaztu ezinik nabilen norbait zuzendari nagusi horretaz ondo esaka nabaritu baitugu, agian egun batean hitz goxoak eta pallitak entzun zizkiolako; eta guk sinistu!!! Eta ni neu orain ez naiz gaizki esaka ari —hori egitea itxusia baita— gauzak nola diren adierazten baino.

Haren auzi galdua ene auzi eragile bihurtu nuen, beste ekitaldi bat eginik ea ezer aintzinatzen ote ginen ikusteko. Dokumentazio faltarik ez nuen eta arrazoi faltarik ere ez legearen —eta ez diot jurisprudentziaren— beraren arauera makurturik ere, itsu batek ere ikus baitzezakeen. Baina azken hitza zuzendari nagusiak zuen apeza ez bazen ere esaera zaharrak dion moduan eta eman zuen erantzunetik probatu daitekeenez nik aurkeztaturikako argumentuez behar zen bezala ez zen jabetu. Halakoetan sarri gertatu izan den bezala, lehen galerazia zegoenez gero eta lasaitzeko bidea eman beharrean gehiago hestutzeko zalea izanik bera, mendeko norbaiti esango zion ezetz erantzun behar zela eta modua bilatzeko eta hark eraz zituen gaiekin ahal zenik itxura dotoreenean apaindu zuen izkribua ezezkoa gerta zedin erantzunaren forma, Greziako sofisten arteko tradiziorik jatorrenean, eta kito!!! Gero firma bota zuen: José Poveda Murcia. Halako jokabideekin, gero ikusiko dugun bezala, legean ez datorren dotrina delako bat ere sortu da eta gaztelaniaz besterik mintzatzen ez direnei berei ere errota harriz komekaerazi nahi zaie.

Aurreko auziaren erabakian esaten zen bezala honetara iritsi behar nuen legeak dionaz gainera: «que el interesado llegue a probar, cuando ello no sea un hecho notorio, que en el vocablo invocado concurre una cualquiera de estas circunstancias: a) tener en la actualidad valor de nombre propio de varón en el

EUSKARAZ MINTZO DEN
EUSKAL HERRIA
BEHAR DUGU



EROS ETA IRAKUR



EUSKALDUNON
ALDIZKARIA

Okendo 22
DONOSTIA

Izen-deiturak.....
.....
Kalea.....
.....
Herria.....
Probintzia.....

lenguaje o en el recuerdo vivos de las familias o de los pueblos del país vasco; b) tener en vascuence significación apropiada para designar varón; c) ser un vocablo vasco que haya designado personaje histórico o ente con relevancia cultural suficiente para pervivir como nombre de varón».

Iruritako parrokoak aginikako lau zertifikatu aurkeztatu nituen bataio liburuetarik, hilenetarik eta ezkonduenetarik XVII eta XVIII-garren mendeko bezala agertzen diren hainbat **Eneko**-ren berri emanez eta baita zenbait guraso eta aitabitxirenak ere eta mundu guztiak dakienez liburuok erdaraz izkribaturikakoak izaten badira ere **«Eneco»** ez da **Iñigo** forman agertzen. Hala ere 1973-garren urteko azaroaren 12-ko erantzuneon «el nombre propio medieval Eneko» esaten da. Harrigarriena da Eleizalde-k 1910-garren urtean argitara zuen Arana Goiri-ren **Deun-ixendegi euzkotarra** liburuan **Eneco** erantsi zuela erdarazkoen artean **Iñigo** formaren ondoan eta honen aldaera bezala, euskarazkoen artean **Eneka** gizonezkoentzat eta **Eneke** emakumezkoentzat ipinirik. Ez dago dudarik oharretan aipatzen dituen erdarazko saindu izendegi Bartzelonan argitaraturikako bietarik bat dela gutxienez horren iturria, eta saindua **Eneko** Oña-ko apata XI-garren mendean bizi izan zena. **Eneko** izenaz eginikako beste lan batean erantsi dut Eleizalde-ren beraren geroagoko eritzia. Mitxelena-k agirian ezarria (**Euskera** XX (1975), 375 orr.).

Gorago esan dudan bezala gaztelaniazkotzat ipini nahi izan zen izen batekin gertatu zena aipatuko dut, 1969-garren urteko azaroaren 11-an bigarren aldiz galerazia baitago: **Elisabet**. Erabakiak dionez XVIII-garren menderarte zeharo finkatu gabe omen zegoen: «vacilante», bertan esaten denez, baina azkenik **Isabel** forma finkatu omen da betiko eta bestea «forma anacrónica» bezala juzgatu behar omen da eta ipintzea ez omen da bidezko, eta **Elisabet** oraingo ohituraz Bibliako izen bezala erabiltzen bada ere gaztelaniaz betiko **Isabel** gelditu denez gero hori besterik ezin ezar omen daiteke eta bortxatu beharrezkoa omen da legezko segurantza eta uniformitatearen izenean («en aras de la seguridad y uniformidad jurídica»).

Ez da harritzeko, beraz, eni ezezkoa eman izatea Euskal Herritik kanpora ere erabili denaren probak ematen ahalegindu banintzen ere. Gainera enearen aurreko auziaren haseran Euskal Akademiaren Gipuzkoako ordezkaritzan eman zen lehen zertifikatuan erdaraz «arcáico» kalifikazioa eman zitzaionez gero gutxiago —bigarrenean idazkariak «atestiguado en documentos de los siglos XI al XV, inclusive» esaten zuen eta ez zuen aldatzen lehen esana—. Jakina, nik aurkeztatu nituen XVIII-garren mendeko probek ere ez zuten balio, ezta **Eneco** erdarazko saindu izendegian agertzearenak ere.

Gogoan dut egun batean adiskide dudan juez bat hasi zitzaidala esaten: «He encontrado la manera de que en el Registro Civil se imponga el nombre de **Ion**, porque como es el que lleva un personaje griego —hain zuzen ere sofista baten izena da, Platonen lan baten titulu bezala agertzen dena— la ley no se opone a ello. Eta orduan bat batean erantzun nion: «Es que los griegos, como Palas Atenea, no serían nacidos de madre, pero nosotros los vascos, sin embargo, sí, y los nacidos de madre son los únicos a los que se les suelen negar los derechos».

Harrezkero, errege berriarekin beste giro bat sortu da. Euskal Akademia bera ere legez indartu dute eta pertsona izenei dagokien legearen zati bat aldatzeko asmotan dago Madrileko Gorteetan (LRC, art. 54), jadanik batzordeak diktaminaturik, hontzat edo txartzat hartzearen zain eta honela gelditu omen da: «En la inscripción se expresará el nombre que se dé al nacido. Tratándose de españoles, los nombres deberán consignarse en alguna de las lenguas españolas» (**B. Oficial de las Cortes Españolas**, núm. 1515, 2-VII-1976). Gainera orainarte ipini diren izenak aldatu nahi baldin badira bidea emango omen da leku berean esaten denez.

Laster izenak Espainiako hizkuntza batean baino gehiagotan ipintzeko modua sortzen baldin bada non gelditzen da legezko segurantza eta uniformitatearen izenean bortxatu beharra? Edo aldatzeko dagoen legeak ez ote du aldatzen denean segurantzarik izango? Nork sinistu hitzontziei?

Nolanahi dela, ordea, egungo soziolo|ia problemei kasu egiten baldin badiegu ere pertsona izen asko izateak ez dakar batere kalterik. Horrela agian ez lirateke gertatuko gertatzen diren beste izen eta deitura berbereko pertsona administrazioetako fitxetan, hala nola **Juan Perez** edo **Maria Etxebarria.**

Legea oraindik ofizialki aldatu ez bada ere juezak hasi dira apur bat eskua zabaltzen eta gero testo berria hontzat hartzen denean zaharo makurtuko dira bertan dionera. Baina, kontuz! Legearen zati bat bakarrik aldatzen da, guri eta gure kasuan daudenei dagokiena hain zuzen ere, baina gainerakoan orainarteko jurisprudentzia eta ohiturak zutik mantendu nahi lituzkeenik balego —eta berez jarraitu egin behar omen ditu— zenbait gauzatan lehen bezala gaude.

Lekukotasun bat emango dut: Ene adiskide eta ikasle izanikako batek semeari izenez **Joanes** ipintzea erabaki zuen eta juezak ezin zuela esan zion izen hori latinezkoa zelako eta nahi bazuen euskaraz **Jon** edo gaztelaniaz **Juan** ipiniko ziola. Jakin nuenean ene kolkorako esan nuen oraingo egoera berri honek ere gora beherak sortuko dizkigula. Esan zitzaion **Joanes** euskarazkoa zela eta bazituela aldaera gehiago ere, hala nola Manes, Johane, Johañe eta abar, **Kepa**-z gainera **Peru, Betiri, Piarres, Peri, Pello** eta abar dauden bezala.

Baina gaztelaniazkotzat ipintzen direnetarako lehen aipatu dugun **Elisabet** izenak, konparazio baterako, sortu duen jurisprudentzia gorde nahi duenik baldin balego ez ote digu guri ere gauza berbera beteerazi nahiko norbait zirikatzen hasten baldin bada edo auziren bat sortzen baldin bada?

Azkenean **Joanes** ipini zion izenez gorago aipatu dugun juezak, baina ez kezkarik gabe.

Betikoan gaude autonomia baten inguruan, kolonialismo arrasto guztiak zeharo suntsitu-rik, gauza hauei ere behar den bezalako bidea ematen ez baldin bazaie eta Madrilen kokaturikako lege gizon zuzendari nagusi bihurtu batek, gure hizkuntzaz, munduaz, barreneko historiaz eta bereziki gure gogoaz ezer ez dakiela, espero ez dugula euskalduna gertatu delako ez baldin bada, erabakiak hartuko ditu, kasurik hoberenean borondate honez, berez gu euskaldunok, eta ez beste inor, garela horretarako nor eta gauza eta hemen besteren borondate honak ez du balio.

Euskaltzaindiari eskatzen diodana hauxe da:

1. Hontzat eta zuzen bezala har ditzala euskaldunen artean korritu eta korritzen duten pertsona izen bakoitzaren aldaera guztiak bata bestea baino hobetzat juzgatu gabe eta ez dadila bere helburua izan pertsona izen bakoitzaren ~~aldaera guztiak bata bestea baino hobetzat juzgatu gabe eta ez dadila bere helburua izan pertsona izen bakoitzaren~~ aldaerok forma bakar bat betiko izatera nahi ta nahi ez iritsi behar dutela eta hutz dezala hau etorkizunean bortxatu gabe sortzen diren ohituren arauera.

2. Aipaturikako eritzia bere dotrina bezala harturik agirian ipin dezala, eta, inoiz behar balitz, Estatu istituzionalizatuaren beraren aurrean ere hala ager dezala behar den indar eta zorroztasun osoz, Estatu horren eritzia hala ez balitz ere.

Jakina, Euskal Akademiara kontseilu eske doazenei hark beretzat puntuok dotrina bezala hartzen dituen —hartzen baldin baditu— arauera erantzun beharko zaie. Heldu dela ordua halako gauzetan bururik ez makurtzeko diotset euskaldunei eta denon artean Euskal Akademiak bakarrik ezin egin dezakeena egin ahal izango dugula.

Bilbon 1976-XI-25, biharamonean Euskal Akademiaren batzarrera Donostiara eramana.

A. I.

PERTSONA IZENEZ GEHIAGO

Euskal Akademiaren azaroko batzarrerako lan bat ekarri nuen Euskal Herrian izan dugun pertsona izenen auziaz eta azken orduan ezin irakurri izan nuen astiezagatik hitza eman ez zitzaidalako .Urrengo hilean ohiturazko batzarre arruntik izango ez baikenduen, agirikoa baino, eta euskaldun guztien ardurakoa zela uste izanik, artikulu hori PUNTO Y HORA DE EUSKAL HERRIA aldizkarian argitara nuen abenduaren 15-erako kalera atera zen numeroan. Edozein modutan ere egungo batzarrean aurkeztatzen dut eraskin honekin batera.

Artikulua agertu ondoan hilbeltzaren 4-ean legea aldatu da eta honela etorri zaigu argitara:

BOLETIN OFICIAL DEL ESTADO, 8 DE ENERO DE 1977:

«LEY 17/1977, de 4 de enero, sobre reforma del artículo 54 de la Ley de Registro Civil.

«El artículo cincuenta y cuatro de la Ley del Registro Civil estableció la necesidad de que los nombres propios de españoles se consignaran en castellano. Esta regla pugna con el hondo sentir popular de los naturales de distintas regiones españolas, que se ven privados de la posibilidad de que los nombres propios en su Lengua vernácula sirvan, dentro y fuera de la familia, como signo oficial de identificación de la persona.

«La presente Ley tiene la finalidad de corregir esta situación, atendiendo, de un lado, al hecho cierto de que la libertad en la imposición de nombres no debe tener, en principio, otros límites que los exigidos por el respeto a la dignidad de la propia persona, y procurando, de otro lado, amparar y fomentar el uso de las diversas Lenguas españolas, ya que todas ellas forman parte del fondo autóctono popular de nuestra Nación.

«En su virtud, y de conformidad con la Ley aprobada por las Cortes Españolas, vengo en sancionar:

«Artículo primero.—El párrafo primero del artículo cincuenta y cuatro de la vigente Ley del Registro Civil, de ocho de junio de mil novecientos cincuenta y siete, quedará redactado en la siguiente forma:

«En la inscripción se expresará el nombre que se dé al nacido. Tratándose de españoles, los nombres deberán consignarse en alguna de las Lenguas españolas».

«Artículo segundo.—A petición del interesado o de su representante legal, el encargado del Registro sustituirá el nombre propio, impuesto con anterioridad a la vigencia de la presente Ley, por su equivalente onomástico en cualquiera de las Lenguas españolas. La sustitución será gratuita para los interesados.

«Artículo tercero.—La presente Ley entrará en vigor el día siguiente de su publicación en el «Boletín Oficial del Estado».

«Dada en Madrid a cuatro de enero de mil novecientos setenta y siete.

«JUAN CARLOS. El Presidente de las Cortes Españolas: TORCUATO FERNANDEZ-MIRANDA Y HEVIA».

Zorionez lege aldatzeari hitzaurre bat ipini diote, Gorteetan lehen diktaminaturik zegoela berteko Boletin Oficialean agertzen ez zena eta horrek, letrauak bide zabaletara bultzaeraziz legea interpretatzeko momentuan, aurreko jurisprudentzia apurtzen du, juezak lehen momentutik ohitura txarrak hartzen hasten ez baldin badira bide hestuagoetara abiaturik, zabaletara makurtu gabe.

Uste dut aurreko lanean proposatzen nuen bide zabala ondo sar daitekeela lege berrian, zeren legegileak legea hobeto ulartzeko dionez gogoan izan behar baita, alderdi batetik, errealitate egiazkoa den gisara, izenak ipintzeko libertateak ez duela izan behar, oinharriz, pertsona berberaren duintasunari zor zion errespetoaren mugarik baino, eta bestetik gure hizkuntza ere, Peninsulako besteekin batean, zaindu eta haren erabiltzea ugaldu egin behar dela, orainarte Euskal Akademiak helburutzat izan duen bezala.

Horretarako, ordea, bide zabaletik nola ibili eta ibilerazi ikasi behar dugu eta gure tradizio zaharrez ere behar den bezala baliatu behar dugu, hain zuzen tradizio zaharra ere iraulerazle bihur baitakiguke nolako urritasunera iritsi garen azken mende ta erdi honetan ikusirik.

TRADIZIO ZAHARREZ BALIATUZ

Legea atera ondoan badakit norbait **Pedro** izenaren lekuan **Haitz** ipintzekotan zebilela eta ez dakit azkenean zer egin duen, baina alde batera utzirik hori esan nahi dudana da legearen arauera eskubide osoa duela ene ustez eta bide hori ez doala inola ere tradizio zaharrean, baita latinezkoan ere, eta ez hain zaharrean, korritzen zuen ohituraren kontrar eta are gutxiago hizkuntzen legeen kontra. Ezaguna denez **Petrus /Petri(us)** ebanjelioan datorren hitz greko baten latinezko itzulpena, mozio maskulinoa erantsirik, besterik ez da. Ikus **Vulgata**, 16, 17-18, **Evangelium secundum Matthaeum: Beatus es Simon Bar Jona, quia caro et sanguis non revelavit tibi, sed Pater meus, qui in caelis est. Et ego dico tibi, quia tu es Petrus, et super hanc petram aedificabo Ecclesiam meam, et portae inferi non praevalebunt adversus eam.** Grekora itzulirikako testoa da ezagutzen den zaharrena, zeren jatorriz arameoz izkribaturikakoa izan omen zen eta orijinala agian betiko galdu baitzen.

Latinez **Lupus / Lupi(us)** zegoela guk bakenduen, esate baterako, **Otsoa / Otxoa / Oxoa / Otxo / Otxoko / Otxote / Otxando / Otxanko / Otxoteko / Otxalo / Osano / Osando** / eta **Otxanda** / Otxandako eta abar, alde batetik, eta **Lupi / Lopi / Lope / Txopi / Txope / Lopeko / Lopetxa / Lopero / Txopino / Txopite / Lopiko / Lopete** eta abar bestetik.

Edo bagenituen geureak, hala nola, **Seme / Xeme / Txeme / Semeno / Xemeno / Semero / Semenko / Semenso,** Erdal Herrira **Jimeno** bezala zabaldua.

Ene —patronimikoa **Enetz** zen— / **Eneko / Enetxo / Enexo / Eneki / Enesko / Enenko / Eñeto / Eñetza** / eta abar, lehen pertsonaren genitibotik, erdaraturik **Meo Anaya > Minaya, Ene Peruko** formaren gisara, eta, dudarik gabe, euskarazkoak **Ene Anaia** izan behar zuen, **Mio Cid** eta abar. Euskal forma erdaraz **Iñigo** izatera iritsi da.

(H)obeko / Obetxo /Obenko / eta abar, **(h)obe** formatik.

Jaun —**praenomen** gisa ere erabil zitekeena— / **Jaunso / Jaundo / Jaunti / Jauntxe / Jonti / Jontxi** eta abar.

Latinez hitz egiten zen garaiean Mediterraneo inguruko herrietan ez zen inor saiatzen, mundu guztiak uste duenez, pertsona izenetan trabarik ipintzen eta hor dira nahi diren beste apelatiboetatik sortuak, hala nola, **Vincenti(us)** 'gudu irabazle' euskaldunen artean **Binkenti > Bikandi, Bixintxo, Txente,** eta abar, iraun zuena, **Felix** 'zorion', euskaldunen artean **Beritz / Helitz / Heritz / Eritz** formetan iraun zuena, **Dulciti(us) / Dulcitus** 'dultze', euskaldunen artean **Dulkiti / Dulkite / Dulkito** formetan iraun zuena, **Asinari(us)** 'astazain', euskaldunen artean **Azeari / Azari / Azeri** bezala iraun zuena, gero basapizti ezaguna adierazteko ere erabili zela, **Bellus / Belli(us)** 'eder', euskaldunen artean **Bellu / Bello / Beli / Bele / Bel Belso Beltxo / Beltxa** —hau **beltza** kolore izenaren diminutiboa ere izan zitekeen— **Beltxe / *Beltxi (Meltxi)** / eta abar, alde batetik, eta ~~bestetik~~ **(H)ederra / (H)ederro / Vita,** euskaldunen artean **Bitako** alderdi batetik, eta bestetik **Biziko / Bitxia** —balio adierazkorraren bidez zentzu berezi bat hartu duena— / **Bitxio / Bixio Bizinai Bizinaia** azkenengo biok esan nahi mugatuago bat dutela jatorriz.

Grekoz ere berdin gertatzen zen: **Teofilo** 'Jainkoaren zale', **Eugenio** 'ondo jaioa', latinez nolabait **Natalis,** euskaldunen artean **Jaio,** egun deitura bezala irauten duena eta jatorriz pertsona izena baino ezin izan zitekeena.

GURETZAT ALIENA EZINA DENA

Beraz, libertatea esaten denean gutxienez tradizioz ulertzen zen bezala izan behar du eta hori guretzat aliena ezina da. Gainera demokraziara bidean omen goaz eta hori bentzutze historiko bat omen da. Hori hala baldin bada arrazoi handiagoz joan behar da bide zabaletik, edozein modutan ere ez legeak markatu duena baino hestuagotik. Ez dakigula gerta, ordea, arnasa hartu ezinik egon garen erorialdi honetan itsatsi zaigun ohituragatik nola guregana behar dugun aize osasuntsua ez jakitea eta behar dugun elementua ~~guretzat~~ izanarren itotzea.

Bilbon 1977-garren urteko urtarrilarern 27-an. Biharamonean Euskal Akademiaren batzarretan Donostian irakurria.

Alfonso Irigoyen

Punto y Hora de Euskal Herria astekarira Pertsona izenez gehiago titulurekin bidali nuen artikuluak honela jarraitzen zuen, baina azkenengo zati hau ez zuten sartu

.....
... Donostian irakurria.

P.S. Lan hau egin eta irakurri ondoan urtarrilaren 10-ean El Correo Español-El Pueblo Vasco Bilboko egunkariak juez jaun batekin eginikako elkar hizketa zekarren eta bertan ea Arantza ipini ote daitekeen Aranzazu formaren partez galdetzen diotenean diminutiborik ezin ipin daitekeela erantzuten du. Hemendik diotsat ea diminutiboen kontu hori non dion legeak eta diminutiboa zer den beretzat hori balio, zeren euskal munduan apurtxo bat bakarrik sarturik dagoen batek ezin esan baitezake Arantza formak balio adierazkorrik duenik edo berak nahi duen bezala diminutibo baliorik, hori izateko euskaldun askoren artean Arantxa behar baitu gutxienez. Badiotsat gainera ea zergatik ipintzen dituen eskatzen diotenean Paulino eta horrelako izenak, Paulino, esate baterako, Paulo, edo norbaitzuk nahiago duten bezala Pablo --femeninoan beti Paula--, formaren diminutiboa besterik ez baita. Eta betiko leloa esaten baldin bazait, hau da, erdaraz Lola ezin ipin daitekeela Dolores delako, bortizki erantzungo dut halako gauzak Madrilen inguruan dabiltzan erdaldunen kontuak direla eta gure mundua ez dugula juzgatzen utzi behar kanpotikako kontzeptu sinple eta homologagaitzez eta gutxiago inori mundu adierazkor nahasi eta era guztietako sakontasun eta tximurdurak dituenean muturrak sartzen utzi, aldezaurretik bera behar den neurrian gure mundu euskaldunean sartu ez baldin bada. Mundu adierazkorra homologaezina izaten da sarri hizkuntza batetik bestera. Batean zerbait kariño adierazle dela antzekoa bestean plebeyo-egia da bere burua dotoreagotzat duenaren eritziz. Edozein modutan ere esan behar zaiguna da ea zertan Arantza izenak --eta ez da hori baino erabiltzen jendearen artean Aranzazu, euskaraz Arantzazu, formaren ordez-- ukitzen duen pertsonaren duintasuna. Eta gainera izenak etxe barrurako eta kanporako balio behar omen dute. Hizkuntzaren legeak herriak egiten ditu eta azken finean burrukarik asko eginik besteak ere bai, eta ez juezak. Nolanahi dela ere balio adierazkorra duten izenak Frantzia eta Ameriketan ere erabiltzen dira, hala nola Jeannette eta Estatu Batuetako buru dena ere Jimmy Carter deitzen da.

Alfonso Irigoyen.

Glossaire - termes basques

GLOSSAIRE DES PRINCIPAUX TERMES BASQUES EMPLOYES EN TOPONYMIE
(orthographe francisée)

Ager (g dur) point élevé, vue.
Aintzira, étang, lac, levé, vue.
Aintzin, aitzin, devant
Aldapa, pente, flanc.
Alde, côté, à côté.
Apal, bas.
Arté, entre
Azpi, dessous

Baratze, jardin, enclos
Basa-, silvestre, sauvage.
Begi, oeil; point de vue, our-begi, source.
Behera, beheiti, en bas, par en bas.
Beltz, noir.
Benta, voir, menta.
Berho, berro, taillis, fourré.
Berri, neuf, nouveau.
Bi, bide, chemin.
Bista, vue, point de vue.
Borda, bergerie, grange, dépendance d'une "etche"
Bortou, port de montagne, col
Bourou, tête, extrémité, bout.

Chouri, zouri, blanc
Dolare, pressoir.
Don, saint
Dorré, tour

Eder, eyer, beau
Ekhi-alde, Est
Elhorri, épine
Eliza, église
Erreka, ravin, ruisseau
Errepira, errepia, barthe, fond plat d'une vallée.
Errota, moulin (prop. roue)
Ezponda, digue.
Etche, maison; etchetto, maisonnette.
Etchola, cabane
Eyherra, moulin
Ezkin, izkin, coin, angle.

Gain, dessus
Garay, élevé, haut
Gaztelou, château (fort)
Gibel, partie postérieure.
Goiti, par en haut
Gora, haut
Goyen, le plus haut; sommet.
Gorri, rouge

Haran, vallée
Handi, haundi, grand.
Harri (har, en composition) pierre.
Harpe, grotte; haitz, aitz, roche
Hegi, bord, côte, coteau, parage
Hego, hego-alde, Sud, midi
Hei, étable, hangar.
Jauregi, château

Ibay, fleuve
Ibar, vallée
Igouzki, soleil; igouzki-alde, Est.
Ihi, jonc; ihiztoka, joncheraie, marais
Ilhar, bruyère.
Inda, intha, marais, fondrière
Ipar, Nord.
Iratze, Ira- fougère
Istil, marais.
Itsaso, itsas-, mer
Itourri, uthurri, fontaine.

Karrika, rue; quartier central.
Karrika-bourou, carrefour,
Kartiel, quartier, hameau, région.
Kayolar, chalet, bergerie de montagne
Kouroutze, Kouroutche, croix.

Labe, four.
Labour, court.
Lako, lakou, pressoir.
Landa, champ.
Larre, lande.
Lekou, lieu.
Lepo, col.
Leize, gouffre, aven
Louze, long

Mahast, mahasti, vigne
Mendebal, Ouest
Mendi, montagne
Menta, benta, maison de vente, "vent"
Mullo, sommet
Mouga, limite, frontière
mougarri, borne
Mounho, tertre.

Naousi, maitre, principal
Naza, barrage, bief

On, houn, bon
Oyan (en composition oyar) bois, forêt.
Olha, cabane
Ondo, auprès,
Ordoki, plaine, plateau

Orre, genièvre
Othe, (otha) ajonc, thuie

Partha, bartha, barthe, marais.
Patar, côte, montée
Pe, en-dessous, au pied de
Playa, plage.
Plaza, place, fronton, centre du village
Portou, port
Pounta, pointe

Sala, grande maison, manoir
Senda, chendra, sentier

Teileria, tuilerie
Ttipi, ttiki, tiki, chipi, petit
Toki, lieu, endroit.

OUbi, oubide, gué
OUhaitz, torrent, rivière
OUhalde, torrent

OUr, eau, d'où sont tirés les trois mots précédents, donnent un très grand nombre de composés commençant par our-, oub-, ou-, oug-

Zaar, zahar, vieux
Zabal, chabal, large.
Zedarri, borne
Zoko, choko, coin (rentrant)
Zurruta, churruta, cascade.

SUFFIXES:

-a, article, le, la; -ak, les
-aren, du, dela; -en, de, des

-ko, du, de la, (locatif)
Etcheberriko borda, la borde dedéla maison) Etcheberri

-aga, signifie le rassemblement, l'abondance: harriaga, endroit où il y beaucoup de pierres (harri)
-baita, -enea, -enia, chez

-doy, -toy, -di, -ti, lieu où se trouvent tels ou tels arbres: sagardoy, verger; haristoy, chênaie intchausti, plantation de noyers.

-eta, suff. pluralisateur: kouroutcheta, les croix

